



Berrien buletina

AGOIZKO UDALA

www.aioiz.es – www.facebook.com/ayuntamientoaoiz

83 zk.-2024ko uztaila
EKAINA LABURPENA

Sortu da Aranea, Agoizko Haur Eskolan kalitatezko heziketan sakontzen joateko enpresa publikoa

Agoizko Udalak aldaketa garrantzitsu bat iragarri du bere Haur Eskolaren administrazioarako, eta datorren ikasturteik aurrera udal kudeaketa publikokoa izanen da.

Agoizko Haur Eskolaren ibilbide berriari hasiera emateko zentroaren izena eta irudia ezagutu ahal izan ziren horretarako presatatutako ekitaldi hunkigarrian. Agoitz eta Erdotzain arteko toponimoa (Aranea) aukeratu da izentzat. Eskolak hazkunde pertsonalerako eta profesionalerako lekua izan nahi du, eta baita egunerokotasunerako tresnak arakatu, ezagutu eta eskuratzeko gunea ere.

Agoizko familia eta auzotar ugari bertaratu ziren Kultur Etxean egindako aurkezpenera, eta bertan ezagutzera eman ziren horren

kudeatze eredua eta eskolako eguneroko lana sostengatuko duen proiektu berria.

Ángel Martín Unzué Ayanzek, Agoizko alkateak, nabarmendu zuen 0-3 hezkuntza zikloa hobetzeko eta duin bihurtzeko, bere heziketa lana eta hezitzaile taldeko lan baldintzak hobetzeko egindakoa. *"Prozesu partekatua izan da, egungo taldearekin batera egindakoa, zentroaren publizitatean aurrera egiteko eta, horrela, ematen dugun zerbitzua hobetzen joateko"* nabarmendu zuen Unzuék.

Enpresa publiko berriak haur eskola kudeatuko du hein batean, eta, horretarako, hezitzaile taldeak proiektua birformulatu du. *"Ikasturte berezia, desberdina eta korapilatsua izan da. Eguneroko lanaz gain,*

arratsalde asko eman ditugu talde osoaren artean gogoeta egiteko, partekatzeko, adosteko eta hezkuntza proiektu berri bat idazteko", adierazi du Garazi Labiano Burguete ikastetxeko zuzendarikideak.

Apostu berri honetako oinarriak sendoak dira. Espazio desberdinak atondu dira, bakoitzak bere giro berezia duena, zeinetan haurrak libreki mugituko diren, diziplina positiboa erabiliz. Esperimentatzeko espazioak izanen dira, eta naturarekiko eta herriarekiko harrimana bultzatuko da.

2013.nez geroztik eraldatzen jakin duen proiektua da, eta eskolatik pasa diren pertsona guztiek beren hondar aletxoa utzi dute. Hezitzaile taldeak izugarri eskertu du ekarpen hori.



AYUNTAMIENTO DE AOIZ
AGOIZKO UDALA



AGOITZ JASANGARRIA
AOIZ SOSTENIBLE

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



AGENDA
2030

AGOIZKO UDALAREN KOMUNIKAZIO, INFORMAZIO ETA PARTAIDETZA PLANA 2024

Berrien buletin hau e-mailez jaso nahi baduzu, igorri mezu bat comunicacionaoiz@gmail.com-ra, eta bertan adierazi gaia, hots, buletina.

Agoizko merkataritza zurekin batera hazi nahi du: merkatarien lan taldea

Duela urtebetetik hona, eta Nafarroako Gobernuak bultzatutako Landa Merkataritza Dinamizatzeko Zerbitzu Sarea proiektuaren esparruan, Agoizko Udaleko Cederna Garalurren laguntzarekin, Agoizko merkataritza borondatez eta elkarrekin ari da lanean lantalde batean.

Kolektiboaren helburu nagusia tokiko saltokiek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta lana ikusaraztea da, bai bertako biztanleentzat, bai bisitatzen gaituztenentzat, baita ekimen bateratuak bultzatzea ere.

Taldeak jarduera ildoak identifikatu ditu merkataritza sektorea profesionalizatzeko, komunikatzeko eta bultzatzeko. Horren ondorioz, herriko merkataritzaren diagnostikoa eta erronkak zehazteko motibazio tailerra antolatu zen. Partaidetza horren ondo-

rioz, lehenengo ekintzetako bat marka eta eslogan bat garatzea izan da, Agoizko merkataritzaren ikusgarritasunerako eta balorizazioarako abiapuntu izanen dena, eta gaur aurkeztuko da udal bulletin honetan.

Une horretatik aurrera, komunikazio eta sentsibilizazio kanpaina berriak egingen dira hainbat eskarri eta espazio erabilita: jaien programa, webgunea eta udal

aldizkaria, kartelak, bideoak eta merchandisinga, besteak beste. Jarduerak garatzen joanen dira pixkanaka.

Ekintza horiek guztiek Agoizko Udalaren babes ekonomikoa dute, hurbileko merkataritzari laguntzeko estrategiaren barruan (Tokiko Agenda). Helburua, enplegua sortzea eta zerbitzuak eskaintzea gure herriko bizi kalitatearen alde egiteko.



Nasuvinsa oihan biomasa aprobetxatzeko Europako proiektua gidatzen ari da

Nasuvinsak gidatzen du Europako BIO4RES proiektua, 1,36 milioi euroko aurrekontua duena, Nasuvinsaren eta Kataluniako, Frantziako eta Portugalgo beste lau erakunderen artean banatuta. Ekimenaren helburua da baso suteen prebentzioa eta kudeaketa hobetzea eta Europako hegomendaldeko eremuan (SUDOE) basoen erresilientzia indartzea. Hamabost entitate elkartuk ere parte hartzen dute, Nafarroako Zuraren Enpresen Elkarteak, Cederna-Garalur eta Agoizko Udala

barne. BIO4RESEk PromoBiomasse proiektuko lanekin jarraituko du, eta suteei aurrea hartzeko estrategiak, biomasaren erabilera berriak eta basoen kudeaketa trebatzeko jarduerak bultzatuko ditu.

Programatutako ekintzek landa eremuko biztanleriari eusten eta ingurune horietan egin ohi diren kudeaketa lanei balioa ematen lagunduko dute. Era berean, Nafarroako zuraren sektorean identifikatutako prestakuntza beharrei erantzun nahi diete.

Nasuvinsak 418.026 euroko aurrekontua du proiektu honetarako, EGEF (FEDER) funtsekin eta Landa Garapen eta Ingurumen Sailarekin batera finantzatuta.



Udako denboraldia hasi da



Ekainaren 8tik irailaren 8ra bitartean, Kanpondoa Kirol Guneak igerilekuak ireki ditu, jendearen gozamenerako. Denboraldi honetan, egonaldia iraupena eta sarreraren prezioak malguak izanen dira. Iraupen anitzeko txartelak eros daitezke: hiru hilabeterako, hilabeterako edo hamabost egunetarako. Prezio zehatzak Kanpondoan eta webgunean ikus daitezke.

Konplexuaren ordutegia 09:00etatik 22:00etara bitartekoa da; baino igerilekua, aldiz, 11:00etatik 15:00etara eta 15:45etik 20:00etara erabil daitezke. Muskulazio gela 09:00etatik 21:45era irekiko da.

Araudia Kanpondoaren webgunean ere kontsulta daitezke, eta igerilekuaren eta barbakoaren erabilerari buruzko arauak jasotzen

ditu. Garrantzitsua da azpimarratzea 11 urtetik beherakoek heldu bat izan behar dutela esparruaren barruan igerilekuko edalontzi handira sartzeko.


Gainera, udako Ludoteka eskaini da, bost asteko iraupena izanen duena, abuztuaren 2a arte. Programak haurrentzako euskarazko jarduera ugari eskaintzen ditu.

Debekaturik dago sua piztea aisia jardueretarako

Ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak, baso-suteak prebentzeko LURZORU URBANIZAEZINEAN suaren erabilera arautzen duenak, bere testuan jasotzen duenez, udan, ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean, kanpin kategoriako establezimenduetatik kanpo, debekatuta dago sua aisialdirako erabiltzea, horretarako egokitutako lekuak barne,

hala nola barbakoak edo kanpoko beste edozein instalazio eta errepideetako atsedenekuak. Debeku honetan sartzen dira beroa edo sua sortzen duten tresna guztiak, hala nola kanpin-gasa, etab.

Suaren erregulazio honek LURZORU URBANIZAEZIN orori eragiten dio, BARATZEAK BARNE.



Suhiltzaile taldeentzako dirulaguntzak

Nafarroako Gobernuak Barne Zuzendaritza Nagusiak 186.194,32 euro eman dizkie suhiltzaile boluntarioen elkarteak dituzten udalei, haien funtzionamendua laguntzeko. Onuradunen artean Agoitz nabarmentzen da, 21.289

euro jasoko baititu. Beste toki onuradun batzuk Bera, Goizueta eta Izaba izan dira.

Aurkeztutako eskabideak %100 finantzatu dira, horretarako kreditu nahikoa egon delako; izan ere, bat-


zorde teknikoak uste du egindako eskaerak ezinbestekoak direla segurtasun-arrazoiengatik, edo beharrezkoak direla suhiltzaile boluntarioen parkeen funtzionamendurako.

Europako hauteskundearen emaitzak Agoitzen

Joan den ekainaren 9an egindako Europako hauteskundeetako Agoizko emaitzak honako hauek izan dira: Orain Errepublikak (ERC, EH Bildu, BNG eta beste batzuk biltzen dituen koalizioa) taldea garaile izan zen, botoen % 44,34 eskuratuta, hau da, 439 boto guztira. Emaitzak igoera nabarmena adierazten du 2019ko aurreko hauteskundeekin alderatuta, non botoen % 39,18 lortu zuten.

PSOEk, hazkunde moderatua izan du, eta bigarren postuari eutsi dio, botoen %21,21 eskuratuta (% 19,38 2019an), 210 boto guztira.

Alderdi Popularrak (PP) ere gorakada nabarmena izan du: % 13,63 (135 boto) lortu zituen, eta 2019ko hauteskundeetan, berriz, % 7,08.



Voxek, berriz, botoen % 5,15 (51 boto) lortu zituen, aurreko hauteskundeetan baino (% 1,85) gehiago. Hauteskunde hauetarako aurkeztutako alderdi berriek, hots, Sumar eta Se Acabó la Fiesta, botoen % 4,24 eta % 2,02 eskuratu zuten, hurrenez hurren.

Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioak (CEUS), zeinetan Geroa Bai, besteak beste, dagoen, behera egin zuen: 2019an botoen %10,37 jaso zuen eta aurtengoan % 3,83. Podemos izan zen nabarmen be-

hera egin zuen beste alderdietako bat. Moreek 9 puntu utzi zituzten 2019arekiko. Orduan lortutako ehunekoa % 11,42koa izan zen, eta % 2,92koa, berriz, 2024an. 113 boto-paper gutxiago.

Parte-hartzeari dagokionez, beherakada nabarmena izan zen aurreko Europako hauteskundeekin alderatuta. Parte-hartzea % 50,15ekoa izan zen, eta 2024an 997 boto zenbatu ziren, 2019ko hauteskundeetan % 68,63koa izan bazen ere.

Nafarroak berretsi du natura guneak kudeatzeko bere konpromisoa



Nafarroako Gobernuak berretsi egin zuen Agoizko udalerrira kide duen Nafarroa Ezagutu Sarea elkartearrekin duen konpromisoa, naturaguneen, gune berezien eta ibilbideen kudeaketa hobetzeko. Batzar orokorrean, bost erakunde berri sartuko zirela iragarri zen, eta

guztira 86 izanen zirela. Bertan, plataforma indartzea eta 2024rako eta 2025erako dirulaguntzak handitu direla nabarmendu zen, eta proiektuen % 80raino finantzatzeko dira, erakunde bakoitzeko 25.000 euro gehienez ere. Laguntza horietarako 542.593 euroko aurrekontua

esleitu da. Gainera, zuzendaritza batzordea berritu zen, eta espazio naturalak edukiera kontrolatzeko tresnan sartzeko proposamen berriak aurkeztu ziren. Tresna hori orain 18 gunetan erabiltzen da.

Batzarrean 2024ko Ekintza Plana onartu zen, jasangarritasun teknikarientzako Prestakuntza Plana eta irisgarritasunari eta naturaguneetako jendetzaren kudeaketari buruzko hainbat ikastaro biltzen dituen.

Nafarroa Ezagutu Sarearen helburu nagusia da espazio naturalen, berezien eta ibilbide publikoen garapena sustatzea, 2030 Agendan definitutako jasangarritasunaren hiru ardatzen bidez. Agoitzen Iratiko Ibilbidea sare horren inbentarioan sartu da.

Nafarroako despoblazioaren kontra aritzeko Legea eta baliabideak eskatu ditu Kontuen Ganbarak

Kontuen Ganberak Nafarroako despoblazioari buruzko txosten bat argitaratu du, eta foru lege bat onartzea eta Lurralde Kohesiorako Departamentuari giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak ematea gomendatu du. Despoblazioaren fenomeno konplexuari heltzeko zeharkako politiken beharra nabarmentzen du txostenak, Nafarroako udalerrien % 61i eragiten baitio.

1993tik, Nafarroako biztanleria % 27 hazi da, eta udalerrien erdiak baino gehiagok biztanleak galdu ditu. Gaur egun, 166 udalerrri daude despoblazio-arriskuan, batez ere Pirinioetan, Pirinioetan, Zangozaldean eta Lizarraldean.

Dokumentuak iaz onartutako

despoblazioaren aurka borrokatzeko estrategia goraipatzen du, nahiz eta urteko eta urte anitzeko plan operatiborik ez dagoela adierazten duen. Pirinioetako Plan Estrategikoa ere aipatzen du, gobernantza parte-hartzailearen eta eraginkorraren eredu gisa, kaltetutako beste eremu batzuetan errepika daitekeena.

Hala ere, Toki Administrazioaren eta Despoblazioaren Zuzendaritzan langile nahikorik ez dagoela kritikatu du, ezin izan baitu funtsezko ekimenen buru izan. Txostenak premiazkoa egiten du azpiegitura digitalak hobetzea, hala nola zuntz optikoa eta abiadura handiko Internetarako sarbidea, biztanle urriko eremuetan.

Azkenik, Kontuen Ganberak ezarritako neurrien eraginkortasuna ebaluatzearen garrantzia azpimarratu du, eta koordinazio eraginkorra eta zeharkako ikuspegia duten politika publikoak ezartzea gomendatu du.

Bestalde, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) parte-hartze prozesu bat hasiko du, toki entitateek lurralde kohe-sioari eta despoblazioari buruzko etorkizuneko foru legeari buruzko ideiak proposa ditzaten.

Prozesua bi fasetan garatuko da: hasierakoa, testu artikulaturik gabe, eta bestea, arauaren idazketa aurreratua dagoenean. Gainera, Batzorde Betearazleak lan horiek bultzatzeko talde eragile bat sortzea erabaki zuen.



Eskolako jantokiei buruzko dekretu berria

Nafarroako Gobernuak 58/2024 Foru Dekretua onartu du, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako jantokiak arautzen dituen. Esparru berri honek 1,3 milioi menu osasuntsu bermatzen ditu ikastaroaren 175 egunetan, lehen aldiz ekaina eta iraila barne.

Dekretuak hezkuntza gune bihurtzen du jantokia, eta elikadura ohitura osasungarriak, higiena

eta bizikidetzaren sustatzen ditu. Produktu fresko eta ekologikoak erabiltzea eta lekuan bertan sukaldatzea bultzatuko da. Gainera, eskola jantokia diruz lagunduko da, lanaldia edozein dela ere eta haurra arratsaldeko jardueretara joan beharrik gabe izanda ere.

Ikastetxeek jantokien urteko plan bat garatu behar dute, eta tokiko erakundeek 2025/2026 ikastur-

tetik aurrera kudeatu ahal izanen dituzte zerbitzu horiek. Dekretuak jantoki arruntak eta eskualdekoak ere sailkatzen ditu, eta Hezkuntza Departamentuak jantoki batzuen birkonfigurazioa ebaluatuko du 2026/2027 ikasturtea baino lehen. Erakundeen babesarekin onartua, dekretuak familien eta ikasleek egungo beharrei heltzen die, eta inklusioa eta bizikidetzaren sustatzen ditu.

Indarkeria sexistarik eta diskriminaziorik gabeko jaietarako kanpaina berria

Nafarroako Gobernuak "Nafarroan... Gozatu, partekatu eta errespetatu" kanpaina hau abiarazi du, tratu ona sustatzeko eta jaietan emakumeen aurkako indarkeria eta sexu-aniztasuna prebenitzeko. 35 urtetik beherakoei zuzenduta dago, eta intentsitate txikiko indarkeriak identifikatzea eta geldiaraztea, harreman-trebetasun osasungarriak sustatzea eta sexu-praktika arriskutsuak saihestea ditu helburu. Kanpainak kartelak, bideoak eta sare sozialetarako materiala ditu, espazio publikoetan

eta tokiko hedabideetan zabaltzeko. Sexu-osasunaren eta gazte-riaren arloetan lan egiten duten Hiesaren aurkako Batzordea eta Gozamenek sarea bezalako erakundeek babesten dute kanpaina. Bateria ahalegin horren helburua da onespeneraren kultura eta errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanak sustatzea. Iaz, 266 erakunde lagundu zuten ekimenean, eta aurten ere antzeko laguntza espero da. Agoitz, indarkeria sexista mota guztien aurkako konpromisoan irmo, errepikatu egi-

ten du, eta kanpaina bere jaietan abiaraziko du.



Agoitzek aniztasuna ospatu du Kulturarteko Astean

Ekaineko lehen egunetan antolatutako Kulturarteko Asteak, Agoizko hainbat tokitan ospatu dena, balantze arrakastatsua eman du parte-hartze aldetik. Ekimen horren jatorria Agoizko ikastetxean antolatutako kultur anitzeko jarduerak izan zen; eta ondoren herrira hedatu zen, Agoitzen dauden kulturen arteko bizikidetzeta eta elkar ulertzea sustatzeko.

Duela lau urtetik hona, herriko ikastetxeak Nafarroako Gobernuaren "Laguntza" proiektu pilotuan parte hartzen du, hezkuntza emozionalean eta eskola jazarpenaren prebentzioan oinarrituta. Programa honek hiru ardatz na-

gusi ditu: harreman pertsonalak, besteekiko harremanak eta komunitatearekiko eta ekosistemarekiko harremanak. Ahalegin horren barruan, familien sarea sortu zen Agoizko eskolaren eta hainbat kulturarteko familien arteko komunikazioa eta lankidetzeta errazteko.

Kulturarteko Astearen egitarauan adin guztietarako diseinatutako hainbat jarduerak zeuden, hala nola argazki erakusketa bat, jolas tailerrak, euskarazko eta gaztelaniazko ipuin saioak, eta Agoizko migrazio historiko eta garaikideari buruzko testigantzak. Gainera, kultura arteko mural bat, antzezlan bat eta jai-kalejira bat antolatu

ziren, zeinetan herriko hainbat taldek parte hartu zuten. Astea amaitzeko, hainbat kulturarteko jai tipikoak dastatzeko bazkaria egin zen.

"Aniztasunak aberastu egiten gaitu" leloak aste honetako helburua islatu zuen: errespetua eta inklusioa sustatzea, eta komunitatean kultura-aniztasunak duen balioa nabarmentzea. Agoizko Kulturarteko Astea Udak parte-hartze aktiboa izan du eta hainbat kolektiboren babesera ere, eta agoizka herritarren arteko loturak indartzeko balio izan du, ingurune inklusiboagoa eta aberasgarriagoa sortuz.



Kultur balantzea

Ekainean zehar, Kultur Etxeak bi erakusketa antolatu zituen, biak ohikoak ikasturte amaierarako garaian. Lehenik ikusgai egon zen Ikastetxeko eta Haur Eskolako ikasleen lanak biltzen zituen "Artista txikiak" erakusketa, eta ondoren zaharberritze eta pintura ikastaroei buruzkoa, azken ikasturtean egindako proiektuen aukeraketa batek osatzen zuena.

Agoizko Musika Bandak "Canta" ikuskizunean parte hartu zuen, Agoizko Musika Eskolako ikasleek egindako musikala, ikasturte amaierako ohiko kontzertua ere eskaini zuena. Eta Uharteko musika eskolarekin eta Agoizko Erraldioen Konpartsarekin elkarlanean, txistu ikasleek eskola egutegia ixteko entzuketa bat egin zuten.

Agoizko San Migel Abesbatzak,

udako solstizioaren efemeridea den Musikaren Jaia ospatzeko, kontzertua eskaini zuen Nafarroako parkean.

Kultur programa, Vianako Printzea Erakundearen Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatua, berriro itzuli zen herrira hilabetea amaitzeko. Levelibular konpainiak "Portamundos" antzerki akrobatikoko ikuskizuna aurkeztu zuen 2024ko edizioan.



Federazio Absolutuen azken fasea, Agoitzen

Agoitz Nafarroako eta Estatuko pilotaren gunea izan zen, F36M Federazio Absolutuen Espainiako Txapelketaren azken fasea herrian antolatu zelako. Toki Eder pilotalekuak bildu zituen Nafarroa, Errioxa, Katalunia, Gaztela eta Leon, Galizia eta Andaluziako esku eta erremintazko selekzioak, titulu nazionala lehitzeko. Programazioak asteburu oso bat bete zuen.

Ostiralean Nafarroako eta Errioxako selekzioen arteko itzulera jardunaldia jokatu

zen, eskuz banakako eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko partidak egin ziren.

Larunbatean erremintako (larruzko paleta pala motza) finalerdiak ospatu ziren Nafarroa eta Andaluziaren artean. Egun berean ere lehiatu ziren Katalunia eta Errioxa (larruzko paleta) eta Gaztela eta Leon (pala motzean).

Igandean jokatutako finalerdietan, Nafarroako erreminten selekzioak ezin izan zuen garaile atera, la-

rruzko paleta eta pala motzeko titulu nazionalak ihes egin baitzitzairen. Hiru tanto besterik ez ziren falta izan – bat larruzko paletako finalean eta bi pala motzeko partidetan – urrezko dominak lortzeko.

NAFARROAKO KIROL JOKOAK. Agoizko frontoia Nafarroako Kirol Jokoen 3. faseko Lehen Mailako Finalaren egoitza izan zen ere. Bertan, Oier Nicuesa agoizkoak, Agoizko Kirol Elkartearen ordezkariak, eta Ander Garcia irunberriarrak (haur mailan) parte hartu zuten.

